

## AIZKOLARIEN URREZKO KOPA 2021

### SAILKAPEN PROBA

Hogeita hamazazpi urte dira “Aizkolarien Urrezko Kopa” izeneko lehiaketa egiten dela abuztuaren 15ean, Aste Nagusian, Trinitate plazan. Aizkolari egutegiko Klasikoa bihurtu da.

Gure asmoa ospakizuna aurrera eramatea da, eta 2020an egin zen bezala, 2021 hau ere abuztuaren 15ean izango da Trinitate plazan.

Hala ere, eta COVID19 pandemiak Herri Kiroletako kirol-egutegietan duen eragina dela eta, ezinezkoa da gure lehiaketaren oinarritzko araua betetzea: proba egin aurreko urteko Euskadiko Txapelketako lehenengo bost postuetan geratu ziren aizkolaria izatea.

Baldintza hori betetzeak gure lehiaketari edizio guztietan izan duen kalitatea eta kategoria ematen dizkiola jakinda, erabaki dugu uneko aizkolari onenen artean aurreko hautaketa puntuala eta berezia egitea.

Horretarako, deialdi egokia egin dugu eta, Gipuzkoako Herri Kiroletako Federazioarekin elkarlanean, sailkapen proban aplikatuko diren oinarriak prestatu ditugu:

**Eguna:** uztailaren 10a, larunbata

**Ordua:** 19:30ean

**Lekua:** Trinitate plaza.

**Egin beharreko lana:**

54 ontzako 7 enbor.

**Dietak:**

Kirolari bakoitzak 300 euro jasoko ditu dieta gisa.

**Parte hartzea:** oinarrietan ezarritako irizpideen arabera, sailkapenean parte hartzera aizkolari hauek gonbidatu dira:

**ARABA:** lurraldean ospatutako lehen mailako aizkolarien azken txapelketako 2 lehen sailkatuak (2019)

**Eloy CORCHERO**  
**Juan RODRIGUEZ**

**BIZKAIA:** lurraldean ospatutako lehen mailako aizkolarien azken txapelketako 2 lehen sailkatuak (2021eko urtarrila)

**Aitzol ATUTXA**  
**Julen LARREA**

**GIPUZKOA:** lurraldean ospatutako lehen mailako aizkolarien azken txapelketako 6 lehen sailkatuak (2019)

**Julen ALBERDI**  
**Iñaki AZURMENDI**  
**Mikel LARRAÑAGA**  
**Ugaitz MUGERZA**  
**Jexux Mari MUJIKA**  
**Eneko OTAÑO**

**NAFARROA:** lurraldean ospatutako lehen mailako aizkolarien azken txapelketako 2 lehen sailkatuak (2020)

**Jon REKONDO**  
**Iker VICENTE**

Guztiak berretsi dute sailkapen-proban parte hartuko dutela, eta abuztuaren 15eko Urrezko Kopan parte hartzeko konpromisoa hartu dute, sailkapena lortuko balute.

**Proba jendaurrean egingo da.**

Aire zabaleko kirol-probei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak “COVID19 kutsatzea prebenitzeko protokolo eta plan espezifikoak egiteko” emandako jarraibideei jarraiki, edukiera mugatua ezarriko da eta 219 sarrera jarriko dira salgai proba zuzenean ikusteko.

Sarrerak bihartik aurrera (uztailak 2, ostirala 11:30etik aurrera) erosi ahal izango dira [www.donostiakultura.eus/sarrerak](http://www.donostiakultura.eus/sarrerak) web orrian.

Sarrerak, Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan ere erosi daitezke.

Erretiratuen sarrerak (prezio murriztua) Antzoki Zaharreko leihatiletan bakarrik salduko dira, eta ezingo dira online erosi.

Probaren egunean sarrerak gelditzen badira, Antzoki Zaharreko leihatilan salduko dira. Trinitate plazan ez da takilarik jarriko.